



MOIO

gordetzea ezinezkoa zen

Kattalin Miner



elkar

lekuko

*Zuri, zaren gorputz disidente horri.
Hernaniko herriari, behinola, halako lezioa emateagatik.*

0 ATALA

memoria-ariketa eta intentzioen adierazpena

2017ko apirilaren 23an, nire hiritik kanpo esnatu nintzen. Ondo baino hobeto nekien zein egun zen, Aimar Elozegi Ansa, edo, lagun artean beti deitu izan genion bezala, Moioaren heriotzaren hamargarren urteurrena hain zuzen; baina lehenengo aldiz, hamar urtetan lehenengo aldiz, ezer berezirik ez egitea erabaki nuen.

Ez nien idatzi urtero idazten diedanei (haiek niri ere ez), ez nintzen loreak eramatera joan, ez nuen tartetxo bat hartu memoria-ariketak egin eta lagunaz akordatzeko. Eguna joaten utzi nuen, inori zein egun zen ere esan gabe.

Hurrengo egunetan, ordea, asko pentsatu nuen horretan; alegia, zergatik ez ote nuen beharrik sentitu ezer ere egiteko. Hasiera batean, pentsatu nuen, pozarren kasik, doluaren azken fasea itxi nuela nik neuk ere, eta lasaitu handia hartu nuen hamar urtetan lehenengo aldiz. “Bukatu da”.

Baina ez nuen nik asmatu zerbaiten bukaera ezinbestean beste zerbaiten hasiera izaten dela, eta apirilaren amaiera hartan, lasaituak

bizpahiru egun iraun ostean, “eta orain, zer?” bat iltzatu zitzaidan buruan.

Inork ez digu kontatu doluaren ostean zer datorren.

Konturatu nintzen orduan, edo sentitu nuen behintzat, urteekin, hain soziala, publikoa, herrikoa eta konpartitua izan zen heriotza hura plano intimora kondentatzen joan nintzela apurka-apurka. Konturatu nintzen lotsa halako bat sentitzen nuela lagun berriei kontatzen nienean “bere buruaz beste egin zuen nire lagun transexualarena”. Azkar esaten nuela, dramatismotik at, eta pena edo erruki izpirik sentiarazi nahi gabe. Aldi berean, konturatu nintzen nire intimitaterako joera horrek janak zituela nigan *gertakari* hark izandako publikotasun, politikotasun eta aldarri zantzu guztiak.

Bolada txarra etorri zen horren atzetik. Isilean bizitu nuena. Lehenengo aldiz kulpaa bizi etorri zen, ez suizidioaren aurreko kulpaa hori, beste kulpaa bat. Hitz emandako zerbait konplutu ez izanaren kulpaa. Memoria iraunaraztearena, borrokari eustearena, zerbaitetarako balio zezan zerbait egitearena.

Moiok egunerokoak idatzi zituen urte luzeetan zehar. Eguneroko sakonak, garratzak bezain maitasunezkoak. Eta, agian horrek bultzatuta-edo, 2017ko udako egun batez, sentitzen nuen ezinegon horretatik, nik neuk ere eguneroko bati ekin nion. Bertan, ia modu primitibo batean, barruan nerabilen hori guztia papereratzeko beharra sentitu nuen.

Hala hasi nuen:

2017ko abuztuaren 21a

Zenbat urte pasatzen utzi behar dira memoria egiten hasi aurretik? Zein da neurri ona gertakari batetik distantzia hartu

ahal izateko, baina oraindik gertakariak fresko mantentzen direla ziurtatzeko? Noiz igarotzen da “gertatu berria den zer-bait”, “gertatu zen hura” izatera? Eta, beraz, noiz hitz egin “gertatu zen hartaz”?

Pentsatu nuen, ni neu bakarka bizitzen ari nintzen hori, hamar urte joanda ere, besteren batzuek ere biziko zutela nolabait. Arrastoa utzi behar izan zuela beste hainbesterengan, eta, intimitatea gauza ederra bada ere, pentsatu nuen isilegi zegoela Moioaren zera hau, goizegi isildu zela behintzat.

Egunerokoa idazten hasi nintzenean, memoria-ariketa hutsa zen, duela hamar urtekoa gaur egunera ekartzeko nahia, ordenatzeko saia-kerak; baina, idatzitakoak berrirakurritz, nabaria da esparru publikora salto egitearen beharra. Eta horretara ez ote nindoan. Edonola, hamar urte atzera egiteko beharra izan nuen neuk ere.

2017ko abuztuaren 29a

2007ko apirilaren 23a zen, astelehena, baina hura ez zen izango beste astelehen huts bat. Unibertsitatetik iritsi berri nintzen etxera. Astelehena izaki, hozkailua erdi hutsik genuen, baina oraindik pisukide batzuen amek tuperrak bidaltzen zizkiguten igandearekin, eta sukaldean ari ginen haiek rasionatzeko kabalak egiten. Esango nuke eguzkitsu zegoela eguna, Bilboko hiria teilatuen gainetik ikusten genuen zazpigarren pisu hartatik, eta leihoak parez pare zabalik genituen sukaldean, gerora garatu dudan bertigoia sumatuko ez banu bezala. Barrez ari ginen, hori akorduan dut, nahiz memoriak ez didan ongi gogoratzen uzten pisukideetatik zeintzuk ginen eta zeintzuk ez sukalde hartan.

Momentu tragikoen aurreko momentuak geratzen omen dira sarri iltzatuta memorian, katastrofearen aurreko sentsazioak birbaloratzen omen ditu buruak. Tsunamiaren aurretik itsasoa zein bare zegoen, lurrikararen aurreko isiltasun hori, bonbardaketaren aurreko normalitatea; “dena ondo zihoan” momentu bare horiek, momentuan bertan baloratzen ez dituzunak, gero urre bilakatzen omen dira memorian.

Sukalde horretan, beraz, Bilboko eguzki anekdotikoa leihotik sartzen eta lagun batzuk barrez, asteburuko kontuak mingai-nean eta gosetuta. Mugikorra dardarka hasi zen une horretan, Maddi lehengusua nuen deika. Lehengusua izateaz gain laguna nuelako, ez zen arraroa deia; bai, ordea, astelehen batez; bai, ordea, eguerdiko 15:00ak paseak ziren horretan; eta zin degizuet, une horretan bertan, telefonoa hartu baino segundo bat lehenago, jakin nuela, iragarpen bat bailitzan, Maddi lehengusuak esango zidana zer zen. Mistikotasuna alde batera utzita, beti sentitu izan dut (nahiz onartu nahi ez izan) gertatu zena gertatu zitekeela usaintzen genuela adierazten zuela horrek.

Beti izan dut memoria nahiko txarra. Ezer gutxi oroitzen dut haurtzaroaz (ez on, ez txar), eta are gutxiago nerabezeroaz. Nire lagun Loreri beti egotzi izan diot “nire memoria externo” izaera. Zelako gustua ematen didan halako xehetasunez gauzak akordatzeko duen gaitasunak; elkarriketak, momentuak, jendea. Lagun artean ni beti izan naiz, akordatzekoa baino gehiago, narrazioak sortzekoa, anekdotak osatzekoa, imitazioak egitekoa. Sarri akordatu gabe ere haiek birsortzekoa, edo, harago joanda, sekula bizitu gabeko istorioak neure egin eta hantxe izan banintz bezala kontatzekoa. Horregatik agian, akordatu nahi dudan istorio honek gehiago du mosaikotik, gehiago du talde sentimenduen

puzzletik, eta gutxiago niretik. Baina kontatu beharrean gaude (nago). Narrazioen egia bat osatzea da xedea, denon oroimen eta hutsuneak batu eta kontatzekoa.

2007ko apirilaren 23an Donostiako autobus geltoki zaharrean jaso ninduten. Ez dut ondo gogoratzen nork [gerora konfirmatu ahal izan dut Ainara zela]. Bilbotik Donostiarako bidea bakarrik egin nuela esango nuke, bakarrik telefonoa eskuan, ama beste aldean “etorri, etorri hadi etxera” esanez eta ni negarrez. Bizitzan lehen eta azkeneko aldiz kalean barrena negarrez, metroan negarrez, autobusean negarrez eta deus inporta gabe. Donostiara heldu nintzen arte, eta autoa zain. Beste norbait ere bazen autoan, baina hemen ere nor zen ezin dut ongi gogoratu. Ez dakit nora jo genuen, Hernanira noski, baina ezin jakin nora zehazki. Eta hemendik aurrerakoak, hurrengo hiru egunak ez dira, hiru une zehatz kenduta, laino grisa besterik nigan. Ezin dut nire gorputza besteek hara eta hona mugitzen zuten haragi puska zatitu bat bezala besterik gogoratu; eta zati horiek batuta mantentzeko elkarri ematen genizkion besarkada desesperatuak. Baina atzera egitea ezin bestekoa da.

2007ko apirilak 19, osteguna. Kasik seguru osteguna zela, Bilbotik iritsi berria nintzen, zer eta lagun talde nahikoa heterodoxo batek konpartitzen genuen lokalera nindoalako. Moioi asaldatuta zeukan lagunartea. Asaldatuta, zer eta bere trantsizioa hasi zuenetik hainbat zirelako haren jarreraren gaineko kexuak eta haserreak. Ez noski zuzenean trantsizioa hasi zuelako, inork ez luke hori esango (ez orduan, ez orain), baizik eta, halako zerbaitek sortzen duen asalduraren aurrean, ulergaiztasuna nagusitzen delako gehienbat.

Kontuak kontu, Moio, transparentzia-ariketa eta biluzte-akzio batean (gerora pentsatu izan dudana, norbaitek bera ulertzeko ariketa desesperatua ez ote zen izan), bere egunerokoak utzi zizkigun lokalean, denon begietara. Horregatik nindoan egun horretan lokalera, “interbentzio” bat egin behar zitzaiolako.

Baina, ordu batzuk atzera jo behar dut, gezurra baita hau bera ere. Ni ez nintzen interbentzio horretan egon; izan ere, aurrez aipatutako Ainara lagunarekin egon nintzen interbentzioak iraun zuen artean, berak ez baitzuen lokalera joan nahi. Hala ere, interbentzioan egon ez banintzen ere, Moio ikusi nahi nuen, eta bukatzera zihoala abisatu zigutenean, inguratu egin nintzen. Bere egunerokoak hartu, eta lokaletik bazihoala topatu nuen Moio. Hasieran gogor egin nion kasu, baina, nire zurruntasunaz bat-batean damututa-edo, korrika atera nintzen bere atzetik. Kalean barrena jarraitu nuen, eta gerora barrenak lasaitu izan dizkidan keinua izan nuen harekin, gure azken unea hain zuzen: besarkatu eta “lasai egon, Moio, dena konponduko da” edo halako zerbait esan nion unea [gerora, nire orduko egunerokoetan irakurri dudanez, “lasai egon, dena pasako da, eta hobeto zaudenean itzuli, hemen egongo naiz” esan nuen]. Honen ondoren, bere azken mezua jaso nuen SMS bidez, esker-rak ematen zizkidana. Eta ondoren, astelehena.

Ezinezkoa da jakitea zergatik gogoratzen ditugun gauza batzuk eta beste batzuk ez. Jakin badakidana da, astelehen hori eta gero, ondo gogoratzen ditudan hautu batzuk hartu nituela, oinarrian lagunaren borroka jarraitzea zutenak. Ordurako, jada militante feminista nintzen, herriko Herne Neska Taldean aritzen nintzen, baita unibertsi-tateko talde feministan ere, eta, egun nahiko agerikoa badirudi ere,

orduan ez zen hain garbi ikusten trans borrokaren eta feminismoaren arteko lotura.

Trans borroka LGTBI hizki horiei lotutako zerbait zen oraindik (eta neurri handi batean izaten jarraitzen du). *Trans borroka* terminoa bera ere ez dakit entzuna ote genuen. Gehiago ziren erratutako gorputzak, sexudun burmuinak. Trabestiak. Hormonak eta operazioak. Biboteak eta takoiak. Bizitza zailak. Akatsa. Nahas-mahasa.

Hala ere, batzuei zerbaitek esaten zigun feminismoarekin erabat lotuta zegoela “transexualitatearen hori”. Eta hurrengo urteetan gertutik jarraitu izan dugu trans borroka, baita transfeminismoaren beraren sorrera ere.

Orain dakigun erdia orduan jakin bagenu.

Urte hauetan, beraz, transexualitateaz eta ondorioz transfobiaz asko ikasi dugu. Hitz egin dugu, landu dugu. Eta egun, genero-mugen zurruntasunek sorrarazi dezaketena ondo baino hobeto dakigu. Ni, ordea, 2017ko udan beste gauza batzuk argitu nahian nenbilen. Beste mamu batzuk astindu nahian. Transfobiak nola eragiten duen badakigu, baina, kasu honetan, eragin zuzena Moio bere buruaz beste egitea izan zen, eta hori, egun haietako eta ondorengo hilabeteetako intentsitatearen ostean, ondo baino hobeto gorde nuelakoan nengoen. Suizidioaz ari naiz, nire eguneroko honetan behin eta berriz agertu den gaia, oraindik ere argitu gabea baina presentzia berezikoa.

2017ko irailaren 8a

Ezkertiar eta ateoak garenez gero, suizidioaren aldeko jarrera politikoa izan ohi dugu sarri. Ondoren gertatu egiten zaizu, norbait inguruan, eta hor lurrikaratzen da zure zoru etiko ezker-tiarra. Nik neuk gaur egun oraindik suizidio-eskubidearen alde

egingo dut politikoki, baina horraino iristen da nire hausnarketa. Suizidioa tabu handi bat delako, heriotza bera tabu hutsa den jendarte honetan. Suizidioak “gehiago egin zenezakeen” kulpasentimendua uzten diolako geratzen denari, edo okerreanean “gehiago ezin egitearena”. Nik ez nuen sekula Moioaren erabakia epaitu, hori argi daukat bai memorian, bai memoria emozionalean. Eta zer diren topikoak, akorduan dut ausarta iruditu zitzaidala, munduko ausartena. Egin zuena egiteagatik, baina egin zuena egin bezala egiteagatik ere bai. Dena lotuta utzi. Errurik ez bota. Altura hartatik salto egin. Egia da, mina, orduan eta gerora sentitutako mina, inoiz sentitu dudana handiena dela, eta sendaketa inoiz bizi izan dudana luzeena.

Baina doluaren lehenengo urtea-edo pasata, halako hase-rre batek jan zizkidan barrenak denbora batez, eta hor sentitu nituen lehen aldiz “berekoia”, “egolatra” edo “koldarra” hitzak bere heriotzari lotuta. Denbora gutxi iraun zidaten, ez dakit zehazki noiz arte. Baina egia da Moioak, transexualitateari buruzko ate handi bat zabaldu zidan bezala, suizidioari buruzko beste sakonera iluneko putzu bat ere ireki zuela nire baitan. Aukera bat. Aurre egin beharreko dilema filosofiko zahar bezain berri bat nigan, egun oraindik mila forma abstraktutan azaltzen zaidana. Bestela ere gizakioi beti azaltzen zaiguna, suposatzen dut, baina nireak, abstrakzio horretan, badu errepikatzen den elementu bat: alturak. Salto egitea. Askatzea.

2017ko azaroaren 12an, Berriak heriotzaren inguruko erreportaje-sorta zekarren. Horien artean, honako hau irakurri nuen lagun baten baserrian asteburu-pasa ginela: “Heriotza. Dolua suizidioetan. Lotsaren eta erruaren armairuan, zirrikitu bat”. *A priori*, esango nuke lotsarenak

ez nauela inoiz gurutzatu, ez erabat behintzat. Baina erruarena beste kontu bat da.

Bere buruaz beste egin dutenen familietakoek osatutako elkarte berri bi ziren erreportajearen oinarria, Besarkada eta Biziraun. Euskal Herrian sortu berriak omen ziren, eta gauza batzuekin haluzinatu egiten duzu, nola ez diren lehenago sortu.

Elena Aisa eta Agustin Erkizia elkarrizketatu zituen egunkariak, gerora Ur Handitan saioan ere ikusi ahal izan nituenak (Aimarren ama Isabelek ere parte hartu zuen bertan). Biek semea galdu zuten, eta biek ere gazte. Horrek, nahi ala ez, halako hurreratze bat sortu zidan egunkari aurrean, neuk ere laguna gazte galdu bainuen, eta, aldi berean, urruntze bat, ni ez bainaiz guraso, lagun baizik, eta suizidioak sortzen duen minaren zilegitasunaren eskalan ez dakit oraindik zein leku osatzen duten lagunek.

Doluaz mintzo zen Aisa, eta konfortagarri egin zitzaizkidan haren hitzak: “Oro har, beste edozein heriotzatan baino luzeagoa eta konplexuagoa da dolua”, eta “suizidioari lotutako doluetan, askotan, denbora pasatu ahala, okerrera egiten du” zioen. Eta pentsatzen dut hamar urte hauetan izandako joan-etorrietan, nireetan eta ingurukoenetan, nola bosgarren urteurrena egin zitzaidan gogorrenetakoa, bat-batean, zauriak ixtea tokatzen zenean, eta galdetu diot neure buruari, ez ote den hamargarren urteurren hau, oraindik ere, doluaren beste puntu bat, ez ote den idatzi hau, memoria-ariketa eta sozializazio-behar batez gain, dolu konplexu horren beste etapa ezezagun bat. Ez dela bukatu. Ez ote dagoen, oraindik, gauza asko osatzeko gudan.

Erruaz ari ziren erreportajea eta arkatzez idatzi nuen paper solte batean Aisak hain latz esandakoa: “Profesionalek esaten dizute: ‘Zuk ahal zenuena egin zenuen.’ Baina denok ditugu akatsak, eta

denok ditugu datu objektiboak erakusteko gauzak hobeto egin zitezkeela”. Lehen kolpean, mailukada batek bezala jo ninduen esaldiak, esango nuke neure buruaz ere errukitu nintzela, orduan ere sentitutako “ez genuen egin zitekeen guztia egin” batekin denbora batez neure burua berriro zigortuz. Zigortuz, eta zigorrean pixka bat irauliz.

Berriro idazten nabil esaldi horrek eragin zidanaz. Beste aldarte bat dut. Gorputzaldiak beste bide bat hartu du: “Denok ditugu datu objektiboak erakusteko gauzak hobeto egin zitezkeela” errepikatu dut ahots goran, eta “bai” esan diot neure buruari, “eta, zer?”. Onartu egin dut baieztapen hori, eta aurrera.

Uda hartako idatziei begira, gai eta oroitzapenetan buru-belarri nenbilela argi daukat, baina, dena irakurri ahala, une batetik aurrera ez dago hausnarketarik, memoriarik; une batetik aurrera, galderaz betetzen ari nintzen neure burua. Kontziente nintzelako nire memoriaren eskasiaz, eta gainera, kontziente nintzelako, baita ere, berriro nire terreno intimo eta pertsonalera eramaten nenbilela kontua, bestelako zurrumbilo batzuetan sartzen ari nintzela, eta, azken finean, Moioaren heriotzatik, memoriatik urruntzen; eta, beraz, berriz zentratu nintzen galdera produktiboengan: zertarako?

Hala, bide egin nion gaiari heltzeko desirari, eta liburu itxura ematen hasi nintzaion neure buruan. Beraz, gehiago itxaron gabe, ingurukoekin hitz egitea erabaki nuen. Lehenak, gaiarekin loturarik ez zuten nire lagunak izan ziren, hau da, Moio ezagutu ez zutenak. Helburua, tinte emozionalik gabe, distantziatik, serio azalduta, gaiak eduki zezakeen balizko interesa neurtzea zen.

Honakoa idatzi nuen iraileko egun batez:

2017ko irailaren 16a

Idatzi honen inguruko ideia hainbat kiderekin komentatu dut. Lagun berriekin (hau da, Moio ezagutu ez zutenekin) edota ikerketa, literatura eta kazetari munduko lagunaren batekin. Hauei kontatzen diet izan nuela lagun bat, Aimar Elosegi Ansa, transexualitatea zela medio, bere buruaz beste egin zuena. Kontatzen diet hamar urte pasa direla jada, eta sentitzen dudala badela nahikoa tarte analisi bat egiteko. Hain zuzen, nire hipotesia planteatzen diet: halako jazoera dramatiko eta traumatiko batek, Hernani bezalako herri batean (eta zabaleran, Euskal Herrian), transexualitatearen inguruko sentsibilitatea handitzen duela, kontzientziak astindu agian, eta elkartasun eta progresismoz bete iritzi publikoa. Baina dudak ditudala, horren guztiaren ondoren, kapazak ote garen, benetan, memoria behar bezala jaso eta pertsona transexualentzat errealki bizigarri eta askeak diren esparru, herri, jendarteak sortzeko; edota, nire susmoak hala dioenez, ez ote dugun, berriro ere, transexualitatea jazoera tragiko batekin lotzen, eta, beraz, arriskutsua, iluna eta isilik mantendu behar den zerbaitekin. Eta hori bera ikertu nahiko nukeela hamar urteren ostean.

Lagun hauek oso ideia ontzat jotzen dute, oro har, “joer, ze interesantea” eta halakoak esanez. Baina sentitzen dut lagun hauei Aimar aipatzen diedala, eta ez Moio nire laguna, sentitzen dut lagun hauei modu aseptikoan kontatzen dielada ideia, kazetari-kutsu batekin, profesionaltasun batekin, edo, esan dezagun lasai, gaiarekiko har dezakedan ustezko distantzia batekin. Baina badakit ongi, azalpen hori guztia emanda ere, “aseptiko, kazetari, profesionaltasun eta distantzia” ezinezkoak diren elementuak direla istorio hau nik kontatuko badut, eta, beraz, beldurtzen nauena, akaso, ezinbestean niretik jarri behar dudan hori dela.

Onartu egin behar da batzuetan ez dagoela norbere burutik zerbait jartzea besterik. Nola kontatu bestela? Nola ekin kontakizunari, non-dik gatozen esan gabe? Ez nion atzera bueltarik ikusten; beraz, atzera buelta hori are eta ekidin ezinagoa bilakatuko zidan lagunarekin jarri nuen hitzordua, eta hortik aurrerakoa idatzita dago.

2017ko irailaren 21a

Gaur Ixiar Pagoagarekin geratu naiz. Ixiar guretzat beti izan da Pagox, ikastolako irakaslea, tutorea, psikologoa; baina, Moioaren zeraren ostetik behintzat, beste zerbait gehiago ere bai. Esango nuke, helduekin, helduen munduarekin zubi bat izan dela Pagox askorentzat, gazteok entzuteko kapazitatea duen andrea, zuzen mintzatzen zaizuna, epelkeriarik gabe eta zintotasunez arituko zaizuna. Moioaren heriotzaren bueltan, batetik irakasle izan genuelako eta bestetik familiaren lagun-mina zelako, konfiantzazko babeslekua izan zen; edo hala oroitzen dut nik behintzat: ahotsa eman zigun, babesa, leku bat. Horregatik agian, proiektu hau buruan dabilkidanetik, harekin hitz egin nahi izan dut lehenik.

Kafea hartzeko egin dugu zita, eta ez zait arrotza egin. Zuzen jo dugu gaira: “Zertan zabilta, kontaidazu”, eta nik idatzi hau, ideia hau, hasiera batean memoria-ariketa hutsa zena eta ondoren zerbait gehiago izango dela usaintzen dudana hau aurkeztu diot. Ixiarrek azkar hartu du hitza: “Hori zen berak nahi zuena, ezta?”, eta esaldi horrek bakarrik berretsi egin du egiten ari naizen edo egitera noan horren zentzua. Hori zen berak nahi zuena. Zabala zedin, kontak zedin, jakin zedin. “Berak jendarteak, egoera aldatu nahi zuen bere ekintzarekin” esan dit

irmo, eta oroitu egin dut haren guztiaren zentzua, gorputzera itzuli dit heriotza osteko izpiritu indartsu hori.

Ordubetez aritu gara hizketan proiektuaz, egun haiez, ondorengoez. Gauza asko itzuli zaizkit burura, barrenetara. Baina Ixiarrek badu gauzak zapla esateko gaitasun hori, eta eraman dudak koadernoan hitz bat idatzi dut ezeren gainetik azpimarratuta: DUINTASUNA. “Egun haietan egin genuena, Amaia-Aimarrek egin nahi zuena, hau da, kalera atera, jende aurrera atera eta ez isildu, ez gorde, horrek guztiak duintasuna itzuli zigun, zion”. Hala da. Suizidioaz hainbeste irakurtzen ari naizen honetan, gutxi hitz egiten da honetaz. Hitz egiten bada, ekintza bera deskribatzerakoan kontatzen da hau; ez, ordea, ondorengo trataeran. Guk herriko plazan eman genion agur herrikoia Moiori. Hileta zibila. Irekia. Denontzat. Inor ez zen lotsatu transexualitateaz aritzean, inork ez zuen ezkutatu heriotza bera suizidioa izan zenik, ez genuen ezer ezkutatu, eta denok interpelatu gintuen. Baliteke hala izatea, ezer ez ezkutatze horrek duintasuna itzuli izana; guri, berari.

Nire kezka bat adierazi diot Ixiarri, kontatu diot nola urteekin nik neuk ere plano intimora eraman dudak jazoera hura, oroitzapena, urteurrenak. Nahi gabe, ezkutatu egin dudala nigan gertaera bera, eta agian hori izan dela motiboetako bat hamar urteren ostean berriro astintzekoa. Pentsakor geratu da, eta baiezkoa eman dit ondoren: “Arrazoi duzu, agian terreno pertsonalera eraman dugu urteekin”.

Gauza askoren inguruan hitz egin dugu. Ixiarrek ere hala esan dit argi: “Orain zuen garaia da. Orduko hartan gazteak zineten, gaur heldutasun batetik hitz egin dezakezue, zuei

tokatzen zaizue; transmisiorik emango bada, zuen ordua da". Ez nuen hala pentsatu, baina galdera bota dugu airera: "Hamar urteren ostean, nor akordatzen da zera hartaz? Lagunez eta familiaz harago, bizirik al dago Hernaniko memoria kolektiboan jazoera hura?". Ezin liteke hamar urtek halako ezabatze-lana egin izana. Dudarik banuen, horren ostean argi sentitu dut, lehen aldiz, idatzi honek ez duela atzera bueltarik.

Familiaz aritu gara, Antxon eta Isabelez, Paul eta Ander anaiez. Haiekin biltzeko beharraz, hau guztia zer irudituko zaien pentsatzen. Ixiarrek ez du dudarik egin, eta errepikatu egin dit: "Berak hau nahi zuen, eta familiak hori badaki".

Ixiarrek beste gauza kurioso bat kontatu dit, agian lehenago ere kontatua zidan, baina indar berezia hartu du testu honen arrazoietan pentsatzen nabilela. Kontatu dit nola agurraren egunean hainbat pertsona gerturatu zitzaizkion, eta kontatu omen zioten haien seme edo alabak gay edo lesbianak zirela. Hori ere ahalbidetu zuen jazoera hark, isiltasuna hausteko behar bat, dena tapatzeko dugun joera horren apurtze bat, adierazteko antsia geldiezin bat. Ez dakigu noiz arte iraun zuen, egun bat, bi edo hilabete batzuk izan ziren, baina momentu batzuetan ahaztu egin genituen tabuak, fobiak, lotsak, eta bizitza jarri genuen plazan, den bezalakoa, bizi nahi dugun modukoa, eta hori ezin dugu ahaztu.

Ixiarrekin izandako hitzordua izan zen azken klabea. Argia eman zion esku artean daukazun honi. Hain zuzen, azken hilabeteak lehen pertsonan eta neure buruarekin borrokan aritu ondoren, ikusi nuelako ez nintzela neu orduko zera hartako garrantzitsuena, ahots asko zeudela aditu nahi nituenak, istorioa osatzeko, kontatzeko eta

biziberritzeko ezinbestekoak zirenak, neureak adina edo are eta garrantzitsuagoak. Bakoitzak berea, eta denek Aimar edo Moiorena.

Hor erabaki nuen elkarrizketa-sorta zela bidea. Lehen pertsonan arituko diren ahotsez osatutako ahots poliedrikoa. Aimarrek utzitakoa biltzeko aukera. Memoria bizitzekoa, eguneratzekoa eta kontatzekoa. Eta hori da irakurtzera zoazena, besterik ez.

2017ko urriaren 3a

[Egun eguzkitsu bat, amarenetik etxera bueltan]

Autoan sartu naiz eta Donostiara bidea hartu dut, eta, ez bat eta ez bi, bidetik atera naiz Santa Barbarara joateko. Salto egin zuen lekura jotzeko, Moiori zertan nabilen kontatzeko. Hainbeste idazten nabilen honetan, batzuetan ahaztu egiten baitut ez dela “gertakari hura” bakarrik, pertsona bat zegoela atzean, lagun bat, bizipen batzuk zituena, hautu bat egin zuena, baina helburu batzuk ere bazituena, eta aspaldi hitz egin gabe ginen.

Santa Barbarako arroketan beti gertatzen zait gauza bera, beti dago jendez lepo. Gaur ere eguraldi ona egin du eta eskalatazailleak dabiltza harrian gora eta behera. Autotik begiratu diet, eta pentsatu dut horietako zenbatek jakingo ote duten duela hamar urte bertatik salto egin zuela gazte batek, zer eta inoiz ez zelako “nahi dudana eta izan behar nintzatekeena” izango. Jakingo ote duten, jakin behar ote luketen.

Ez naiz autotik jaitsi eta musika apur bat jartzea otu zait. Moio musikazale amorratua zen, ezagutzen dudana musikazale eklektikoena, hori ere egia da, baina beti CDak sortzen, nahasten eta oparitzen. Hamar urte hauetan urrea bezala gorde ditudan gauzen artean Moio grabatu izan zizkidana musika-nahasketak


daude, zentzurik gabeak eta, aldi berean, oso bereak. “Denetik Moio” jartzen duena hartu dut, nire kutuna. Zuzenean jo dut 14. kantura. The Goops punk taldearean “Build me a buttercup” kantuaren bertsio bat da. Ez dakit zergatik, baina kantu honek beti ekartzen dit laguna burura, eta Eleanor Whitledge-ren ahots urratuak oihu eginarazten dit sakon. Gaur ere hustu egin naiz.

Kanta errepikatzeko botoiari eman diot eta autoa martxan jarri dut. “Ei, Moio, zuk inork baino hobeto erakutsi zenidan ez dagoela atzera bueltarik. Gauza bera sentitzen dut honekin; bazatoz?”.

...urte batzuk barru tabu hori gainditzean,
gure herrian aitzindari bat izan zela gogoratu.

Hernanik kronika

2007ko apirilaren 26a, osteguna ::: 2.175 zka. ::: www.kronika.net



Amaia-Aimar gogoan izan zuten atzo Plazan egindako ekitaldian

PLAZA betean egin zioten atzo hileta zibila Amaia-Aimar Elozegi Ansa, astelehenean hildako hernaniarrari. Ekitaldian, dantzari eta bertsolariek hartu zuten parte eta bere lagunek eta bere senitartekoen lagunek. Senitartekoen lagunek idatzi bat irakurri zuten, bere bizitzan izandako borroka azaltzen duena eta Kronikan azaldu nahi izan dutena: *“Identitate sexualaren inguruan zenbait tabu gainditu badira ere, beste zenbait oraindik ere badira, transexualitatea kasu, eta beharrezkoa da horiek gainditzea”*. Gaztearen zintotasuna eta ausardia nabarmendu zuten eta *“urte batzuk barru tabu hori gainditzean, gure herrian aitzindari bat izan zela”* gogoratuko dugula esan zuten. Ekitaldian familiari babesa adierazi zioten beren lagun eta ingurukoek. ■



AURKIBIDEA

0 ATALA: memoria-ariketa eta intentzioen adierazpena	7
1. ATALA: (izan) ginen hartatik. Ainara, Ane eta Uso	25
2. ATALA: gordearen indarra. Ander Elosegi Ansa	45
3. ATALA: politika nahikoa ez denean. Medeak: Ana Txurruka eta Josebe Iturrioz	65
4. ATALA: ikusezina ikusten ikasi genueneko. Maialen Lujanbio Zugasti	83
5. ATALA: auzia politikoa den heinean. Iratxe Retolaza	99
6. ATALA: eten ez den katea. Brayan Altimasberes	113
0 ATALA II: zorrak kitatzea	127
0 ATALA III: hitzostea	131